



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak**

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailak 19**

**Vitoria-Gasteiz, 19 de septiembre de 2023**

## Segurtasuna

### EUSKO JAURLARITZAK JAVIER DIÉGUEZ BARRIOCANAL IZENDATU DU CYBERZAINZAKO LEHENENGO ZUZENDARI NAGUSI

- Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia berri hau sortu da Euskadin ziberdelituei modu integralean eta zeharkakotasunez aurre egiteko
- Segurtasun Sailaren mende egongo da eta, Ertzaintzarekin koordinatuta, ziberdelituei eta herritarren aurkako zibererasoei aurre egiteko borroka zaindu eta koordinatuko du

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du **Javier Diéguez Barriocanal** izendatzea *Cyberzaintza* agentziaren, [Agencia Vasca de Ciberseguridad - Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia](#) berriaren, zuzendari nagusi. Josu Erkoreka lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburua buru zela agentziaren Administrazio Kontseilua eratzeko saioa egin eta egun gutxiren buruan egin da izendapena.

**Javier Diéguez Barriocanal** Informatika Ingeniaritzan lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean, eta bere ibilbide profesionala IKT sektoreari estu lotuta egon da. Gainera, esperientzia zabala eta luzea du zibersegurtasunaren arlo zehatzean, eta, berez, 2017tik [Basque Cybersecurity Centre](#) deiturikoaren zuzendaria izan da. Eusko Jaurlaritzak SPRI Taldearen bitartez sortu zuen zentro aitzindari hori Euskadiko enpresetan zibersegurtasuna sartzeko. Hemendik aurrera *Cyberzaintza* izango da ikuspegi integral eta zeharkakoago batetik zeregin horiek bere gain hartu eta zabalduko dituen. Horrela, Agentzia berri honek batez ere hiru arlotan jardungo du:

- ✓ **ZIBERDELITUAK:** Ertzaintzarekin koordinatuta, *Cyberzaintza* agentziak Euskadiko segurtasun publikoa zainduko du, ziberdelituak jazarritz eta herrialdeko azpiegitura kritikoak eta sentikorrak babestuz.
- ✓ **AZPIEGITURA ETA DATU PUBLIKOEN BABESA:** agentzia berriak babestu eta zainduko du euskal sektore publikoko azpiegitura digitalen funtzionamendu egokia.
- ✓ **ENPRESA DATUEN ETA AZPIEGITUREN BABESA:** Eusko Jaurlaritzako ekonomiaren sustapenerako taldearekin koordinatuta, *Cyberzaintza* agentziak Zibersegurtasunaren Euskal Zentro aitzindari eta arrakastatsuen lekukoa hartuko du. Zentroa 2017an sortu zen zibersegurtasunaren ezarpenarekin erlazionatutako jarduera ekonomikoa dinamizatzeko, sektore profesionala indartu eta Euskadi nazioartean zibersegurtasunaren arloko intereseko lurralde gisa posizionatzeko, bereziki industria-esparruan. Alde horretatik, gaur egun Zibersegurtasunaren Euskal Zentroari atxikita dauden pertsonala eta baliabide materialak *Cyberzaintza*n integratuko dira. Horrela, Eusko Jaurlaritzak, oinarri sendo horren gainean, euskal gizartearen garapen jasangarria ahalbidetuko duten ingurune ziber seguru eta erresilienteagoak izateko enpresa-kultura sustatzen jarraituko du.

**Javier Diéguez Barriocanalek** zuzenduko du Agentzia berria erakunde-maila guztietako ordezkariak eta kideak osatutako Administrazio Kontseiluaren eta sektore publiko eta pribatuko adituek osatutako Aholku Kontseiluaren laguntzaz.

## Lana eta Enplegua

### LANBIDEK BIKOIZTU EGIN DU GAZTEENTZAKO LEHEN ESPERIENTZIA PROFESIONALAREN ESKAINTZA EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN

- **Eskaeren eskaera zabala dela eta, 6,2 milioi handitu da 16 eta 30 urte bitarteko gazteak kontratatzeke ekimen hau**

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak bikoiztu egiten du gazte langabeei **administrazio publikoetan lehen esperientzia profesionala** ematen dien programarako aurreikusitako zuzkidura. Horrela, programa honek 13,7 milioi euro izango ditu, Gobernu Kontseiluak gaurko bileran hasierako zuzkidura 6,2 milioi handitzea onartu ondoren, jasotako eskaeren bolumen handiaren ondorioz.

Idoia Mendia Lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak argi berdea eman dio Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak kudeatzen duen programa horri. Programa horren helburua da 16 eta 30 urte bitarteko gazte langabeak kontratatzea Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek eta sektore publiko instituzionaleko, autonomikoko eta tokiko sektore publikoko erakundeek. Horrela, enpleguan lehen esperientziak lortzen dituzte, baita gaitasun eta trebetasun sozial eta profesionalak ere, administrazio horiek emandako zerbitzuen esparruan.

Hasiera batean, laguntza-programa horrek 7,5 milioi euro zituen, eta Europar Batasuneko funtsek finantzaturako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan zegoen. Izan duen garapen arrakastatsuak, jasotako eskaeren bolumen handiak bermatuta, EAEko aurrekontuei lotutako baliabide ekonomiko berriak esleitzera eraman du Jaurlaritza, 13,7 milioira iritsi arte.

Administrazio publikoetako lehen esperientzia profesionaleko programa Lan eta Enplegu Sailak, Lanbideren bitartez, gazteen kontratazioa bultzatzeko eta bultzatzeko legegintzaldi honetan abiarazitako ekimenetako bat baino ez da. Izan ere, tradizionalki, talde horiek zailtasun handienak izan dituzte enplegua lortzeko.

Lanbidek bazuen **Lehen Aukera** programa bat, antzeko ezaugarriak dituen, sektore pribatuan 30 urtetik beherakoei beren titulazioarekin lotutako enpleguetan lehen esperientzia hori emateko. Hiru urte hauetan, gainera, bikoiztu egin da haren baliabide propioen hornidura, Lan eta Enplegu Sailak lehen esperientzia hori lortzeko ez ezik, geroko enplegarritasuna ere ebaluatu ondoren.

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### EUSKO JAURLARITZAK 41 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU ARLO ESTRATEGIKOETAN ELKARLANEKO IKERKETA SUSTATZEKO LAGUNTZA-PROGRAMARA (ELKARTEK)

- Elkartek programa Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Teknologia eta Berrikuntza Zuzendaritzak sustatzen du, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarean (ZTBES) diharduten eragile zientifiko-teknologikoei zuzenduta dago
- Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita

(23/09/19) Gobernu Kontseiluak 41.000.000 euroko gastua baimendu du arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntza-programa (Elkartek programa) 2023ko ekitaldian finantzatzeko. Industria-ahalmen handiko ikerketa-proiektuak finantzatzeko, zuzkiduraren % 25 bideratuko da gehienez, eta interes bereziko ekintza osagarriak finantzatzeko, berriz, % 10 gehienez.

Elkartek programak hiru proiektu mota babesten ditu: **lankidetzan egindako oinarritzko ikerketa-proiektuak** (ZTBESeko hiru eragile motak lankidetzan egindakoak eta RIS3an eta 2030erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean ezarritako lehentasunen parte diren arloetako ezagutzak zabaltzera bideratuak); **industria-ahalmen handiko ikerketa-proiektuak** (I+Gko enpresa-unitateek zuzendutakoak, bakarka edota bultzatzeko ahalmen handia duten ZTBESeko beste eragile batzuekin lankidetzan); eta **interes bereziko ekintza osagarriak** (eskaintzaren eta eskariaren arteko bitartekaritza-organismoek eta hedapen-organismoak soilik egindakoak —bakarka edota ZTBESeko beste eragile batzuekin lankidetzan—, 2030erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planeako espezializazio-esparruekin bat datozenak eta honako hauetan dautzanak: azterlanak egitea, zaintza teknologikoa, lankidetzatza teknologikoa errazteko jarduketak, I+G+Bko proiektuak prestatzeko aholkularitza, ezagutzaren transferentzia eta balorazioa eta I+G+Baren nazioartekotze-jardueretan parte hartzeko aukeraren sustapena).

Diruz lagundu ahal izango diren proiektuak Elkartek 2023 programaren lehen fasean hautatutakoak dira, laguntza horiek arautzen dituen 2023ko urtarrilaren 18ko Aginduari jarraikiz.

Gaur onartu den zuzkidura ekonomikoa honela banakatuta dago:

PROGRAMA	2023	2024	2025	GUZTIRA
5413 teknologia	10.000.000,00	20.500.000,00	10.500.000,00	41.000.000,00

Dirulaguntza esleitzeko irizpideei jarraikiz, I. faseko ebaluazioan lortutako notaren arabera laguntza jaso dezaketen proiektuetako 36 lankidetzan egindako oinarrizko ikerketa-proiektuak dira, 11 industria-ahalmen handiko ikerketa-proiektuak eta 6 interes bereziko ekintza osagarriak.

Elkartek programa Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren 2021-2023 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan txertatuta dago, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileen arteko lankidetzaren areagotzeko beharrari erantzuten dio, Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren (ZTBP 2030) zutabea den aldetik. Azken helburua da Euskadi berrikuntzan aurreratuen dauden Europako eskualdeen artean kokatzea.

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### **5,1 MILIOI EURO BAINO GEHIAGO EUSKADIKO LANDA-EREMUEN SUSTAPEN ETA GARAPEN EKONOMIKORAKO, BIZTANLEEN BIZI-KALITATE HOBETZEN DELA BERMATZEKO**

- **Laguntza hori NPEPE 2023-2027 programak biltzen dituen eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) kofinantzatzen dituen landa-garapenerako 18 esku-hartzeen barruan dago**
- **Programaren aurreko aldian, 2015-2020, 1.117 proiekturi lagundu zitzairen, ia 52 milioi euroko zuzkidurarekin**
- **Deialdi honek laguntza-neurri berri bat jasotzen du ekonomia-jardueretarako guneak gaitzeko**

Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren agindua onetsi du, zeinaren bidez arautzen baita Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoaren (NPEPE) esparruan onartutako LEADER eremuko landa-udalerrien sustapen, garapen eta dibertsifikazio ekonomikorako laguntzen 2023ko ekitaldirako zenbateko ekonomikoa.

LEADER 2023 programak 5.182.500 euroko zuzkidura ekonomikoa du eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) kofinantzatzen du; izan ere, 2023-2027 NPEren Plan Estrategiko berriak biltzen dituen landa-garapenerako 18 esku-hartzeen barruan dago.

Euskadik 20 urte baino gehiago daramatza Leader laguntzak kudeatzen. Europako Leader programaren xedea da Euskadiko landa-eremuen garapen ekonomikoa ahalbidetzea, enplegu-aukerak sustatzea eta biztanleen bizi-kalitatea hobetuko duten zerbitzuak bermatzea. Horren guztiaren azken helburua da landa-populazioari eustea eta hura zabaltzea. MENDINET Tokiko Ekintza Taldeak kudeatzen ditu Leader laguntzak Euskadin.

Esku-hartzearen eremu geografikoa landatzat hartutako 1.273 udal-erakundetan (guztira 261.066 biztanle) ezarriko da. Laguntzak honako hauek jasoko dituzte: pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, nortasun juridikoa dutenak edo ez dutenak, edo edozein motatako unitate ekonomiko edo ondare bereizia dutenak, baldin eta, nortasun juridikorik ez izan arren, LEADER eremuko udal-erakunde horietan aurreikusitako proiektuak eta jarduerak egin baditzakete.

### **Neurri berria ekonomia-jardueretarako guneak egokitzeko**

LEADER programaren 2023ko deialdiak laguntza-lerro berri bat jasotzen du ekonomia-jarduerak gauzatzeko guneak egokitzeko, eta, hala, Euskadin, landa-ingurunean, ekintzailtza eta enpleguaren sorrera sustatzeko.

Honako hauek dira biltzen dituen lau neurriak:

1. **Ekintzailetzarako eta barne-ekintzailetzarako neurria**, enpresa berriak sortu eta hasieran abian jartzeko eta proiektu ekintzaileak garatzeko.
2. **Nekazaritzakoak ez diren enpresetan eta nekazaritza-dibertsifikazioan inbertsioak egiten laguntzeko neurria**, mikroenpresak, enpresa txikiak eta enpresa ertainak sortzen eta garatzen laguntzeko, eta nekazaritzakoak ez diren jardueretan inbertsioak egiten dituzten ustiattegietan dibertsifikazioari laguntzeko, nekazaritzako produktuen eta nekazaritzako elikagaiak ustiatgitik kanpo merkaturatzea barne.
3. **Besteren kontura kontratatzeko neurria**, langileak besteren kontura kontratatzeko, landa-populazioari eusten edo hura zabaltzen laguntzen duten lanpostu berriak sortze aldera.
4. **Guneak gaitzeko neurria**, hirugarren pertsonentzako ekonomia-jarduerarako guneak sortzeko edo egokitzeko. Guneek/lokalek hainbat erabilera izan ditzakete (coworkinga, bulegoak, ostalaritza, etab.)

### **LEADER laguntzek babesten dituzten proiektuak**

LEADER programak “*bottom-up*” ikuspegian oinarritzen den metodologia propioa erabiltzen du. Metodologia horrek tokiko eragileak eta eremuko biztanleak parte hartzera bultzatzen ditu, estrategiak diseinatu eta abiaraztean, erabakiak hartzean, eta landa-eremuen garapenerako baliabideak esleitzean. Aurreko deialdian, programa horren bidez, 284 proiekturi lagundu zitzairen, 15,6 milioi euro baino gehiagoko aurrekontuarekin. 2015-2020 Landa Garapenerako Programaren aldi osoan, 1.117 proiekturi lagundu zitzairen, ia 52 milioi euroko zuzkidurarekin.

Honako hauek dira proiektuok, besteak beste: Kuartango Lab funtzio anitzeko espazioa, Dronetikan airworks dronen bidez aireko argazkiak hartzen dituen enpresa, Galúa eguneko zentroa, Zeberiko Amañe gourmet denda, edo Leintz Gatzagako Gatzaren Museoa leheneratzea.

### **Eskaerak aurkezteko epea eta modua**

LEADER programarako eskaerak egiteko epea hilabetekoa izango da. Pertsona fisikoek aurrez aurre zein elektronikoki aurkeztu ahalko dituzte eskaerak. Pertsona juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek, berriz, kanal elektronikoaren bidez izapidetu beharko dituzte.

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### **EUSKO JAURLARITZAK 600.000 EURO BIDERATUKO DITU NEKAZARITZA-, ELIKAGAIGINTZA-, ARRANTZA- ETA BASOGINTZA PRODUKTUAK EUSKADITIK KANPOKO MERKATUETAN SUSTATZEKO**

- **LEHIATU SUSTAPENA** programaren xedea da Euskadiko kalitateko produktuen garapena, ezagutza eta banaketa sendotzea nazioarteko esparruan, elikaduraren eta gastronomiaren erreferente gisa
- **Laguntza horien bidez honako hauek finantzatuko dira:** azoketan eta merkataritza-misioetan parte hartzea; produktuak aurkeztea eta salmenta-guneetan sustatzea; eta sustapen-materialak egitea

Eusko Jaurlaritzak, gaurko bileran, Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren agindua onetsi du, zeinaren bidez 2023rako nekazaritza-, elikagaigintza-, arrantza- eta basogintza-produktuak EAetik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzak biltzen dituen LEHIATU Sustapena programa deitzen den.

LEHIATU Sustapena laguntzen xedea da Euskadi elikadura- eta gastronomia-arloko erreferentziatzko lurralde gisa sendotzea nazioartean, eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak euskal nekazaritzako elikakatea nazioartekotzeko eta Euskadiko kalitateko tokiko produktu jasangarriak Euskaditik kanpoko merkatuetan sustatzeko gauzatzen duen politikaren barruan dago. Politika hori Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoan (GEPE) eta Euskadiko Elikagaien Industriaren 2024ko Sustapen Planean dago jasota.

LEHIATU Sustapena programaren 2023ko deialdiak 600.000 euroko aurrekontu-zuzkidura du. Zenbateko hori onetsitako eskaeren artean banatuko da, eta gehieneko kopurua 10.000 eurokoa izango da sustapen-jardueretan parte hartzeko banakako ekintzetarako eta 30.000 eurokoa zehaztutako banakako ekintzen artetik guztira 6 ekintza biltzen dituzten eta hiru herrialdetan gauzatzen diren sustapen-programetarako.

Diruz lagundu daitezkeen ekintzen artean honako hauek daude: azoketan eta merkataritza misioetan (zuzenak edo alderantzizkoak) parte hartzea edo haietara bertaratzea; produktuak aurkeztea eta salmenta-guneetan sustatzea; eta, sustapen- eta hedapen- materialak egitea.

Honako hauek izango dira LEHIATU Sustapena programako onuradunak: nortasun juridiko propioa eta egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten nekazaritza-, elikagaigintza-, arrantza- eta basogintza-sektoreetako pertsona fisiko edo juridikoak; kontseilu arautzaileak; eta egoitza soziala EAEn duten esportazio-partzuergoak, baldin eta gutxienez hiru enpresak osatzen badute, haiekiko nortasun juridiko independentea badute eta partzuergoak



osatzen dituzten enpresen 2/3 gutxienez Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroan inskribatuta badaude.

### **Eskaerak aurkezteko epea**

Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da deialdiaren agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Agindua argitaratu ondoren, laguntza izapidetzeko jarraibideak biltzen dituen prozedurari buruzko informazio-fitxa (bertatik sar daiteke eskaera egiteko inprimakietara) honako esteka honetan eskura daiteke: <https://www.euskadi.eus/servicios/0082213>

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### **EUSKO JAURLARITZAK EKONOMIA ZIRKULARREAN BERRITZEKO MILIOI BAT BOSTEHUN MILA EUROKO LAGUNTZETARAKO DEIALDIA EGIN DU**

- **Ekonomia zirkularren printzipioak txertatzeko soluzio berrien garapena bultzatzera eta soluzio horiek euskal ETEetara transferitzera bideratutako hiru dirulaguntza-ildo ezarri dira**

Gobernu Kontseiluak ekonomia zirkularrean berritzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta dirulaguntza horietarako deialdia egiteko agindua (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena) onartu du; dirulaguntzek 1.500.000 euroko zenbateko ekonomikoa izango dute. Zenbateko hori honela banatuko da aurreikusitako hiru ildoetako proiektuen artean: 200.000 euro 1. ildorako (ekodiseinua eta demostrazioa ekonomia zirkularrean); 300.000 euro 2. ildorako (ekoberrikuntza estrategikoa); eta 1.000.000 euro 3. ildorako (ETE zirkularra).

Dirulaguntza horien aplikazio-esparrua Euskadiko industria-enpresen ingurumen-berrikuntza da, eta honako helburu hauek lortzen laguntzea dute helburu:

- Ekonomia zirkularren bidez berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioak murriztea, produkzio-prozesuetako baliabideen efizientzia barnean hartuta.
- Lehengaien kontsumoa murriztea eta, bereziki, lehengairik ez isurtzea.
- Euskadin ekonomia berdea suspertzen, lehiakortasuna hobetzen eta enplegu kualifikatua sortzen lagunduko duten enpresa-jarduera jasagarriak sortzea.
- Lurraldearen ingurumen-erresilientzia areagotzea, merkatu globalean erreplikagarritasun handia duten soluzio teknologiko berritzaileen bidez.
- Europako tresna zirkularren ondoriozko erronkei eta aukerei ekingo dieten enpresen arteko lankidetzak finkatzea.

Horretarako, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak ekonomia zirkularrean berritzeko dirulaguntzetarako atal bat ezarri zuen 2021-2023 aldiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan.

Gaur onartu den aginduak ekonomia zirkularren printzipioak txertatzeko soluzio berrien garapena bultzatzera eta soluzio horiek euskal ETEetara transferitzera bideratutako hiru dirulaguntza-ildo ezarri ditu. Ildoak honako hauek dira:

- 1. ildoak. Ekodiseinua eta demostrazioa ekonomia zirkularrean.
- 2. ildoak. Ekoberrikuntza estrategikoa.
- 3. ildoak. ETE zirkularra.

Lan-ildo horiek esperientzia sendoa izan dute aurreko sei deialdietan. Deialdi horietan, berrehun enpresak baino gehiagok parte hartu dute 1. ildoan, eta enpresa-partzuergoek 60 proiektu baino gehiago garatu dituzte 2. ildoan. 3. Ildoaren kasuan, aurtengoa hirugarren deialdia izango da, eta bitarteko eragileek zuzendutako 200 ETEk parte hartuko dute.

Proiektu bakoitzerako eman beharreko dirulaguntzen mugak, diruz laguntzeko moduko gastuen inguruan onartutako aurrekontuen gainean, honako gehieneko zenbateko hauetara iritsi ahal izango dira, dirulaguntza-ildoaren arabera:

- 1. lerroa. Ekodiseinua eta demostrazioa ekonomia zirkularrean: 30.000 euro proiektuko.
- 2. lerroa. Ekoberrikuntza estrategikoa: 150.000 euro proiektuko.
- 3. lerroa. ETE zirkularra: 100.000 euro proiektuko.

2023ko deialdirako aurrekontu-zuzkiduraren guztizko zenbatekoa milioi bat bostehun mila (1.500.000) eurora iritsi da, eta honela banatuko da ildo bakoitzean:

<b>Ildoak</b>	<b>2023</b>	<b>2024</b>	<b>Lerro bakoitzeko guztizkoa</b>
<b>1. lerroa. Ekodiseinua eta demostrazioa ekonomia zirkularrean</b>	50.000 €	150.000 €	<b>200.000 €</b>
<b>2. lerroa. Ekoberrikuntza estrategikoa</b>	100.000 €	200.000 €	<b>300.000 €</b>
<b>3. lerroa. ETE zirkularra</b>	350.000 €	650.000 €	<b>1.000.000 €</b>
<b>Urteko guztizkoa</b>	<b>500.000 €</b>	<b>1.000.000 €</b>	<b>1.500.000 €</b>

Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindua EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

## Hezkuntza

### **2023-2024 IKASTURTEAREN HASIERAN ESKOLA-GARRAIOKO ZERBITZURIK EZA ARINTZEKO EZOHIKO LAGUNTZAK ONARTU DITU HEZKUNTZA SAILAK**

Gobernu Kontseiluak gaurko bilkuran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2023-2024 ikasturtean eskola-garraioko eskubidea izan arren ikasturte honen hasieran enpresek zerbitzu hori eman ez izanak eragin dien ikasleentzako ezohiko laguntzen deialdia. Hezkuntza Sailak milioi bat euro (1.000.000) bideratu du laguntza hauetarako.

Honako hauek izan daitezke deialdi honen onuradun: Haur Hezkuntzako lehen zikloko hirugarren mailako ikasleak, Haur Hezkuntzako bigarren ziklokoak, Lehen Hezkuntzakoak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoak eta Oinarrizko Lanbide Heziketakoak, baldin eta Hezkuntza Sailak kontratatutako ibilgailuek egiten dituzten ibilbideetan eta joan-etorrietan eskola-garraioa izateko eskubidea badute, eta ikasturte hasiera honetan zerbitzu hori eman ez izanak eragin badie.

Kilometroko 0,29 euroko kopurua ordainduko da, kontuan hartuta etxetik ikastetxerako joan-etorriko bi ibilbide eskola-egun bakoitzeko, jardunaldia zatitua den kasuetan; eta joan-etorriko ibilbide bat jardunaldi jarraituko eskola-egun bakoitzeko. Distantziak neurtzeko, "GeoEuskadi" kartografian oinarritutako tresna erabiliko da.

Eskola-garraioa hezkuntzarako oinarrizko eskubidearekin zuzenean lotuta dagoen funtsezko zerbitzua denez, eta Euskadin ikasturte bakoitzean milaka ikasle ikastetxera joatea bermatzen duenez, Hezkuntza Sailak ezohiko banakako dirulaguntzetarako deialdia egiten du, alde batetik, zerbitzua ez emateak eragindako kaltea gutxitzeko, eta, bestetik, egoera horrek eragindako gastuak ordaintzen laguntzeko.

Eskabide-orriak telematikoki zein paperean aurkeztu ahal izango dira ikasleak ikasketak egiten dituen ikastetxeko zuzendaritzan. Hilabeteko epea izango da horretarako, deialdia EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

## Hezkuntza

### HEZKUNTZA SAILAK MILIOI BAT EURO BIDERATU DITU EKIPAMENDU ZIENTIFIKOA ESKURATZEKO LAGUNTZATARA

- **Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerketa Zentroei (BERC) eta Unibertsitateetako Ikerketa Egiturei zuzenduta daude laguntzok**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, 2024an ekipamendu zientifikoa erosteko laguntzetarako deia egiten duen deialdia. Milioi bat euroko diru-kopurua (1.000.000 €) duen deialdi honen onuradun izan daitezke Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerketa Zentroak (BERC – Basque Excellence Research Centre) eta Unibertsitateetako Ikerketa Egiturak (UPV/EHUkoak izan ezik).

Hezkuntza Sailak, deialdi honen bidez, erakunde onuradunek ekipamendu zientifiko ertaina edo berezitasun handiagoko ekipoak eskuratzea sustatzearen aldeko apustua egiten du. Ikerketa zentro horiek beren baliabideekin nekez eros ditzaketen ekipamenduak dira, eskatzen duten inbertsio handiagatik. Horregatik, bi modalitate bereizten dira, ikerketaren arloko zentroek eta taldeek eskatutako ekipamenduaren kostuaren arabera:

- 1 modalitatea, ekipamendu txikia erosteko, 18.001 eta 250.000 euro bitarteko kostua duena, BEZik gabe. 350.000 euro gordeko dira modalitate honetarako.
- 2 modalitatea, ekipamendu ertaina erosteko, 250.001 eurotik gorako kostua duena, BEZik gabe. Inbertsio handiena behar duen ekipamendurako 650.000 euro gordeko dira.

Ekipamendu zientifikoa, deialdi honen baitan aintzat hartua izateko, I+G+bko jarduerak garatzeko behar diren baliabide fisikoen (edo ekipoen) multzoa da. Ekipamendu horiek egokiak eta beharrezkoak izan behar dute ikerketa-taldeen egungo eta etorkizuneko ikerketa-proiektuak garatzeko. Ekipamendu berria erabiliko duten ikerketa-proiektuek abian egon beharko dute 2025eko abenduaren 31ra arte, erositako ekipamendu berria erakunde onuraduneari erabilgarri egon ondoren.

Horrela, Hezkuntza Sailaren laguntza-deialdi honen funtsezko bi helburuei erantzuten zaie: alde batetik, Euskadiren potentzial zientifikoa eta teknologikoa handitzea, eta, bestetik, euskal ikerketa-taldeek Europako Ikerketa Esparrua eraikitzen arrakastaz eta gaitasunez parte har dezaten erraztea.

Gainera, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko beste eragile batzuek ere (besteak beste Ikerketa Kooperatiboko Zentroek, Teknologia Zentroek edo Ikerketa Sanitarioko Zentroek) parte hartu ahal izango dute deialdian, erakunde eskatzailearen erakunde laguntzaile gisa, ikerketa-proiektuetan ekipamendu zientifiko berria erabiltzeko konpromisoa hartzen duten ikerketa-taldeak ekarriz. Formula honen bidez, Euskadin lan egiten duten ikerketa-taldeek sarean funtzionatzea sustatzen eta indartzen da.

## Hezkuntza

### **500.000 EURO DIPCri, NEUTRINOEN FISIKA-LABORATEGIA HORNITZEN JARRAITZEKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Donostia International Physics Center Fundazioari (DIPC) 500.000 euroko dirulaguntza zuzena ematea. Laguntza hori Neutrinoen Fisika-Laborategia langilez hornitzeko eta ekipatzeko baliatuko du DIPCk.

Euskadiko neutrinoen programa ikerketa-programa aitzindaria da Europan. Helburua du EAEn bikaintasuneko ikerketako azpiegitura berezi bat sortzea, neutrinoen fisika funtsezko eta aplikaturako tresnen eta sentsoreen garapenean espezializatua. Zehazki, DIPCk zuzentzen du ESS Lunden neutrinoak modu koherentean sakabatzeko anbizio handiko esperimendu baten proposamena. Ikerketa-arlo hori garatuz eta indartuz, neutrinoen fisikan esparru berriak esploratu ahal izango dira, funtsezko aurkikuntza-potentzialarekin eta Euskadiko ikertzaileen lidergo sendoarekin. Horrela, Euskadira itzulera zientifiko handia lortuko da, eta Europako Espalazio Iturria (ESS Lund) gehiago erabiliko da; izan ere, horren eraikuntzan, Eusko Jaurlaritza ahalegin eta apustu handia egiten ari da ESS Bilbaoren bidez. ESS energia baxuko neutroi eta neutrinoen iturririk indartsuena izango da munduan.

Laguntza honen helburu nagusia DIPCn Neutrinoen Fisika Laborategia langilez hornitzea eta ekipatzea da. Euskadiko neutrinoen programaren helburua da Suediako Lund udalerrian dagoen Europako Espalazio Iturrian (ESS) neutrinoen sakabatzeko koherentearen goi-estatistikako neurketak egitea.

Kontuan hartuta 2020-2022 urteetan goi-presioko Xe Time (Xenonen denbora) proiektzio-kamera bat garatu eta eraiki dela (XeESS detektagailua), 2023rako helburu nagusiak –Hezkuntza Sailaren laguntzen bidez- honako hauek dira:

- Gas-prototipoa (GaP) martxan jartzea, eta baita istema kriogeniko bat ere, CsI kristalak eta HPGE sistema funtzionazteko
- Neutroi-ganbera bat garatzea, ESSan hondoko neutroi-fluxua neurtzeko
- Lankidetzak estrategikoak sendotzea, bai Ikerketa edo Teknologia Zentroekin, bai lurraldeko industria-eragileekin
- DEMO-HD detektagailuaren pieza nagusien diseinua amaitzea eta barneko pieza espezifikokoak ekoizten hastea, horien funtzionamendua egiaztatzen hasteko.

Era berean, langile espezializatuak kontratatuzko finantzaketari jarraipena emango zaio, eta proiektuan parte hartzen duten laborategien arteko bidaiak eta enpresetara egin beharreko bisitak ordaintzeko ere erabiliko da laguntza. Halaber, Lundera bidaiak egin beharra ere izango da, esperimenduen funtzionamendurako.

## Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

### **ETXEBIZITZA ARLOAK 7,35 MILIOI EUROTAN GEHITU DITU ERAIKINAK ETA ETXEBIZITZAK BIRGAITZEKO LAGUNTZAK**

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko laguntzak sustatzeko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren gastua handitzeari, eta 7,35 milioi euro gehiago izango ditu: 400.000 euro Arabarako, 4,2 milioi Bizkairako eta 2,75 milioi Gipuzkoarako.

Diru-kopuru hori Etxebizitza arloak orain arte birgaitze-lanetarako ohiko laguntzei erantzuteko zituen 29 milioi euroei batuko zaie, horien xedea etxebizitza barruko jarduketetan (1. lerroa) nahiz eraikin osokoetan (2. lerroa) laguntzea izanik.

Laguntza horiek, besteak beste, eraikinen kontserbazioa eta bizigarritasuna (jarduketak fatxada eta teilatuetan, etab.), irisgarritasuna (eraikinean igogailuak instalatzea, bide publikotik dituzten sarrerak edo eraikin barrukoak hobetzea, duxak instalatzea, etab.) edo energia-efizientzia (inguratzailleak hobetzea, leihoak aldatzea, etab.) hobetzeko zaharberitze-lanak egitea errazten dute.

## Seguridad

### EL GOBIERNO VASCO NOMBRA A JAVIER DIÉGUEZ BARRIOCANAL PRIMER DIRECTOR GENERAL DE CYBERZAINITZA

- Es la nueva “Agencia Vasca de Ciberseguridad” que nace para combatir la ciberdelincuencia de una manera integral y transversal en Euskadi
- Dependerá del Departamento de Seguridad y, en coordinación con la Ertzaintza, vigilará y coordinará la lucha contra el cibercrimen y los ciberataques a la ciudadanía, empresas y sector público vasco

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, el nombramiento de Francisco **Javier Diéguez Barriocanal** como Director General de “*Cyberzaintza*”, la nueva [Agencia Vasca de Ciberseguridad-Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia](#). Su nombramiento se produce unos días después de la sesión constitutiva de su Consejo de Administración presidido por el Vicelehendakari Primero y Consejero de Seguridad, **Josu Erkoreka**.

**Javier Diéguez Barriocanal** es Licenciado en Ingeniería Informática por la Universidad de Deusto y su trayectoria profesional ha estado estrechamente ligada al sector TIC. Además, cuenta con una amplia y dilatada experiencia en el ámbito concreto de la ciberseguridad y, de hecho, ha sido, desde 2017, Director del “*Basque Cybersecurity Centre*”, centro pionero creado por el Gobierno Vasco, a través del Grupo SPRI, para promover la incorporación de la ciberseguridad en las empresas vascas. A partir de ahora, “*Cyberzaintza*” asumirá y ampliará estas tareas desde una nueva posición más integral y transversal. Así, la nueva Agencia trabajará, principalmente, en tres frentes:

- ✓ **CIBERDELINCUENCIA**: en coordinación con la Ertzaintza, “*Cyberzaintza*” cuidará de la seguridad pública de Euskadi, persiguiendo el cibercrimen y protegiendo las infraestructura críticas y sensibles del país.
- ✓ **PROTECCIÓN DE INFRAESTRUCTURAS Y DATOS PÚBLICOS**: la nueva agencia protegerá y velará por el adecuado funcionamiento de las infraestructuras digitales del sector público vasco.
- ✓ **PROTECCIÓN DE INFRAESTRUCTURAS Y DATOS EMPRESARIALES**: en coordinación con el equipo de promoción económica del Gobierno Vasco, “*Cyberzaintza*” cogerá el testigo del pionero y exitoso Centro Vasco de Ciberseguridad, creado en 2017, para dinamizar la actividad económica relacionada con la aplicación de la ciberseguridad, fortaleciendo el sector profesional y posicionado a Euskadi de manera internacional como una región de interés en el ámbito de la ciberseguridad, especialmente en el ámbito industrial. En este sentido, el personal y medios materiales actualmente adscritos al Centro Vasco de Ciberseguridad pasarán a integrarse en “*Cyberzaintza*”. Así, el Gobierno Vasco, sobre esa sólida base, continuará impulsando la cultura empresarial de contar con entornos más ciber seguros y resilientes que permitan el desarrollo sostenible de la sociedad vasca.

**Javier Diéguez Barriocanal** dirigirá la nueva Agencia con el apoyo de un Consejo de Administración (integrado por representantes y vocalías de todos los niveles institucionales) un Consejo Consultivo (con personas expertas del sector público y privado).



## Trabajo y Empleo

### LANBIDE DUPLICA LA OFERTA DE PRIMERA EXPERIENCIA PROFESIONAL PARA JÓVENES EN LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS VASCAS

